

CHALLENGE AUDIOVISUAL



IKUS-ENTZUNEZKO ERRONKA ZURRUMURRUEN AURKAKO MUGIKORRAK

“Dibertsitatearen alde, diskriminazioaren aurka”

BALDINTZAK

1. HELBURUA

KULTUR DIBERTSITATEAREN ALDEKO MUGIKORREN erronka Bilboko Udalaren Zurrumurrueen Aurkako Proiektuaren baitako ekintza bat da. Zurrumurrueen aurkako estrategia gizarte-aldaketako prozesua da, epe luzekoa. Beraren bidez, bazterketa prebenitu, elkarbizitza hobetu, eta aniztasunaren potentziala aprobetxatu nahi dugu; horretarako, pertzepzioen, jarreraren eta portaeren aldaketa bat sorrarazi nahi dugu biztanlerian, oro har, nahiz helburu-talde zehatzetan.

Ekimen honen xedea da zurrumurrueen aurkako proiektuaren gaiak lotutako bideo bat egitea.

2. GAIAK

Deialdiaren gaia zurrumurrueen aurkako proiektuaren eduki eta balioetan datza: bizikidetzaren, kulturartekotasuna, dibertsitatea (kulturena, hizkuntzaren eta erlijioena), arrazakeriaren aurkako borroka, estereotipoak, aurreiritziak, zurrumurrueak, nortasuna, errespetua, elkarbizitza, eta dibertsitatearen abantailak eta ekarpenak.

Balitzko edukiak:

- Nola jokatu dezakegu bizikidetzaren oztopatzen duten jardunbide bazterkizirik, aurreiritziak, estereotipoak eta zurrumurrueak borrokatzeko?
- Zer irabazten dugu kulturen, hizkuntzen edo erlijioen dibertsitatearekin?
- Nola adierazten da dibertsitate hori espazio bakoitzean (ikasgelak, parkeak, aisialdi-espazio komunak, edo mota guztietako festa eta ospakizunetan)?
- Zer jarrera sustatu beharko genituzke bizikidetzaren kultural aberasgarri bat mesedetzeko?
- **Kultura ezberdinen arteko bizikidetzaren alorrean zelako esperientziak konpartitu gura zenituzke (bikote-, adiskidetasun- edo aisialdi-harremanak, dantzaren, musikaren edo gastronomiaren ingurukoak)?**
- Gure gizartearen bizi diren gazteek zer gurari, beharri- zaren eta amets konpartitzen dituzte?
- Zer ikasten da askotariko jatorria duten pertsonen kontakua eta harremana izanik?

- Nola aurre egin ezagutzen ez dugunari diogun beldur- rari, kultura ezberdinen arteko pertsonen harreman- naren testuinguruan?

3. KATEGORIAK

Hiru kategoria daude.

- DANTZA.** Parte-hartzaileek bideo bat bidali ahalko dute, banako edo taldeko dantza batekin. Dantza hasi aurretik, erronkaren izena eta eslogana erakutsi beharko dituzte kamera aurrean.
- MUSIKA.** Parte-hartzaileek lehiaketaren xedearen inguruko abestiak (originalak nahiz bertsioak) in- terpretatzen dituzten bideo guztiak onartuko dira. Lehiaketan edozein musika-estilo onartzen da (hip-hop, urbanoa, pop, ...)
- FILM LABURRAK.** Banaka nahiz taldeka egindako edozein bideo propio aurkeztu ahalko da lehiaketa- ra, haren xedearekin eta gaiekin zerikusia badauka. Bideoak fikziozkoak nahiz dokumental-ak izan dai- tezke.

Bideo bakoitzeko parte-hartzaile kopurua, gehienez, 4 lagunekoa da, kategoria guztietan.

4. BIDEOEN IRAUPENA

Bideo bakoitzaren iraupena, gehienez, 2 minutukoa da, kategoria guztietan.

5. BIDEOEN EZAUGARRIAK

Bideoak mugikorrarekin edo beste edozein tresnarekin grabatu daitezke. Gainera, Instagram eta Tik Tok bidez grabatutako bideoak aurkeztu daitezke.

6. LEHIAKETAN IZENA EMATEA ETA BIDEOAK BIDALTzea

Ekimenean parte hartzeko, beharrezkoa izango da baldintza hauen eranskinean dagoen inskripzio-eredua betetzea eta postaz bidaltzea antirumores@bilbao.eus helbidera.

- Instagram eta Tik Tok bidez sortutako bideoak bidalt- zeko, izena emateko formularioan bertan esteka bat partekatuko da.
- Beste formatu batzuetan sortutako bideoak wetrans- fer bidez bidaliko dira helbide elektronikoko honetara:

antirumores@bilbao.eus. Izena emateko formularioan, aurkeztutako bideoaren izena adierazi beharko da.

7. LEHIAKETAN PARTE HARTZEKO BAIMENA

Bideoetan parte hartzen duten pertsona guztiak parte hartzeko eta datuak eta irudia lagatzeko baimen-ordria bete behar dute, gurasoek edo legezko tutoreek sinatua, ekimen honetan parte hartu ahal izateko. Baimen-ordria estekan deskargatu daiteke eta posta elektronikoz hona bidali: antirumores@bilbao.eus

8. BIDEOAK AUKERATZEKO PROZEDURA ETA EPAIMAHAIAREN EPAIA

Hiru kategorietako bakoitzean, epaimahaiak saritutako bideoak aukeratuko ditu.

Epaimahaiak hiru kide izango ditu:

- Bilboko Immigrazioko Tokiko Kontseiluak izendatutako pertsona bat.
- Bilboko Udalaren ekimen eta proiektuei lotutako gazte bat.
- Lankidetzaz, Bizikidetzaz eta Jaietako Saileko teknikari bat.

Epaimahaiak, kategoria bakoitzaren barruan, bideo finalista bat eta bideo irabazle bat aukeratu beharko ditu.

Irabazleak eta finalistak aukeratzeko orduan, irizpide hauek kontuan izan beharko dira:

- Originaltasuna.
- Planteatutako edukietara egokitzea.
- Aurkeztutako bideoetako musikaren, koreografiaren edo zinematografiaren kalitatea.

9. AINTZATESPENAK / SARIAK

Kategoria bakoitzeko sariak hauek dira:

- **Finalista.** Lau lagunentzako bonua, jarduera honetarako (aukeratu: Paint Ball Open Air edo Errealitate Birtualeko Zentroa - Virtual Bilbao). Jardueraren iraupea (2 ordu)
- **Irabazlea:** 100 euroko bonua, establezimendu hauek batean erabiltzeko (FNAC edo Snipes), bideoak parte-hartzaile guztien artean banatuko dena. (gehienez 4 parte-hartzaile bideo bakoitzean)

Gainera, finalisten eta irabazleen artean zenbait pertsona aukeratuko dituzte lehiaketako antolatzaileek, zurrumurruean aurkako gazteen gailurrera joateko.

Gazteen gailurrari buruzko informazio gehiago: https://www.youtube.com/watch?v=tLlO_-5pULA

10. LEHIAKETAN PARTE HARTZEKO BAIMENDUTAKO ADINA

12 eta 17 urte arteko gazteen parte-hartzea onartzen da, baldin eta alde zuzenetik izena emateko formularioa eta gurasoen baimen-fitxa betetzen badituzte.

Sare sozialak erabiltzeko legezko baldintzak kontuan izanik, Tik Tokekin egindako bideoekin 13 urtetik aurrerako pertsonak soilik parte hartu dezakete, eta Instagramen grabatutakoekin, 14 urtetik gorakoekin. Adin horietara iristen ez diren pertsonak beste formatu batzuk erabili beharko dituzte.

11. PARTE-HARTZAILEEN JATORRIA

Bilbon bizi diren pertsona guztiak parte hartu dezakete.

12. PRESTAKUNTZA OSAGARRIA / PARTE-HARTZAILEENTZAKO BALIABIDEAK

Ekimen honetan parte hartzeko interesa duten gazteei laguntzeko, eta aukera gehiago izan ditzaten, antolatzaileek bi tailer eskaintzen dituzte, dohainik eta online, proiektuaren edukiak behar bezala txertatzeko eta aurkeztutako bideoetan kalitate-maila hobetzeko.

- Bideoak editatzeari buruzko online tailerra. Ideiaren eraikuntza, mezua, haria, testuingurua, pertsonaiak, garapena, plano motak, filmaketarako materiala, mekanika, filmaketako efektuak, postproduzioa eta banaketa. Maiatzaren 11n, martitzena, 18:00etan. Izena emateko, bidali email bat antirumores@bilbao.eus helbidera, eta adierazi nork egingo duen eta zein tailerretan eman nahi duen izena.
- Estereotipoak, aurreiritziak eta zurrumurruek, eta beraien ondorioak izeneko online tailerra. Maiatzaren 12an, eguaztena, 18:00etan. Izena emateko, bidali email bat antirumores@bilbao.eus helbidera, eta adierazi nork egingo duen eta zein tailerretan eman nahi duen izena.

13. DATAK / EGUTEGIA

- Parte hartzeko bideoak bidaltzeko azken eguna maiatzaren 31a da.
- Saritutako bideoei buruzko azken ebazpena ofizialki jakinaraziko da, eta sariak zurrumurruean aurkako gazteen urteko topaketan banatuko dira formalki, Bilborocken, 2021eko ekainaren 18an.

14. BESTE BATZUK

- Parte-hartzaile bakoitzak bideo bat aurkeztu dezake.
- Hizkuntza: Film laburreko kategoriako bideoak euskaraz eta gaztelaniaz aurkeztu daitezke.
- Ez da onartuko hizkera xenofobia, matxista, homofobia, arrazista, biolentoa, edo gorrotoa eragiten duena. Antolatzaileek beretzat gordetzen dute aipatutako puntuetakoren bat urratzen duten obrak baztertzeko eskubidea.
- Antolatzaileek beretzat gordetzen dituzte eskubide hauek: parte hartzen duten lanak aldi batez edo modu iraunkorrean BilboGazte web-orrian erakustea, lan horiek zurrumurruen aurkako estrategia sustatzeko materialetan erabiltzea, eta ekimena euren komunikazio-kanaletan sustatzeko erabiltzea lanok.
- Parte-hartzaile bakoitzaren erantzukizuna da bere lanaren edukia indarrean dauden jabetza-eskubideak betetzea, eta Kode Zibilean eta Zigor Kodean ezarritako lege-xedapenak betetzea. Lehiaketak ez du inola ere obren edukia erantzukizunik bere gain hartuko.
- Taldeko parte-hartzea: lana talde batena bada, arduradun bakar batek aurkeztu beharko du, eta berak egingo du izen-ematea, ondorio guztietarako. Gainera, bideoan agertzen diren pertsona guztiek baimen-orrria sinatu beharko dute.
- Baldintzak onartzea: izena emateko formularioaren bidez parte hartzeak esan nahi du parte-hartzaileak baldintza hauen atal guztiak onartzen dituela, eta onartzen duela aurreikusi gabeko auziak antolatzaileek ebartziko dituztela.
- Ekimen honi buruzko zalantzak galdetzeko, idatzi helbide honetara: antirmores@bilbao.eus.
- Obrak originalak eta argitaratu gabeak izango dira. Antolatzaileek ez dute erantzukizunik izango baldin eta lanek egile-eskubideak urratzen badituzte.
- Epaimahaiak edozein sari eman barik uztea ere erabaki dezake.

- Parte hartzen duten pertsonen euren film laburren komunikazio publikoko, erreproduktzio eta banaketako eskubideak lagatzen dizkiete antolatzaileei.
- COVID-19aren egoera kontuan izanik, antolatzaileek indarrean dauden segurtasun-neurrien arabera egokitu dezakete jarduera.
- COVID-19aren aurka indarrean dauden neurriak errespetatuko dituzte parte-hartzaileek, une oro eta salbuespenik gabe. Neurriak onartzen ez dituzten pertsonen obrak ez dira onartuko ez proiektatuko.



Kontaktua: antirmores@bilbao.eus. Telf: 944 204 786

IKUS-ENTZUNEZKO ERRONKA
ZURRUMURRUEN AURKAKO MUGIKORRAK
"Dibertsitatearen alde, diskriminazioaren aurka"

IKUS-ENTZUNEZKO ERRONKA

ZURRUMURRUEN AURKAKO MUGIKORRAK

“Dibertsitatearen alde, diskriminazioaren aurka”

IZENA EMATEKO INPRIMAKIA

IZEN-ABIZENAK:

HELBIDE ELEKTRONIKOA:

TELEFONOA:

HERRIA:

HELBIDEA:

JAIOTZE-DATA:

BIDEOAREN IZENA:

BIDEOAN AGERI DIREN PERTSONA GUZTIEN IZENAK:

1. PARTE-HARTZAILEA (izen-abizenak/jaiotze data/harremanetarako telefonoa):

2. PARTE-HARTZAILEA (izen-abizenak/jaiotze data/harremanetarako telefonoa):

3. PARTE-HARTZAILEA (izen-abizenak/jaiotze data/harremanetarako telefonoa):

4. PARTE-HARTZAILEA (izen-abizenak/jaiotze data/harremanetarako telefonoa):

BIDEOAREN ESTEKA (Youtube, Instagram edo TikTok aplikazioetako bideoak izanez gero, estekak ZUZEN-ZUZENEAN EROAN behar du BIDEORA, ez profilerak). Ziurtatu zure profila EZ DELA PRIBATUA. Beste formatu batean egindako bideoak, we transfer-en, antirumores@bilbao.eus bidali behar zaizkio, bideoaren izena adierazita.

Pribatutasun politika onartzea * Pribatutasun politika: Datuak babesteko araudiarekin bat etorriz (EB 2016/679 Erregelamendua eta 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko) jakitera ematen da beren beregi, zehazki eta argiro eskabide honetan ematen dizkiguzun datu pertsonalak Challenge-aren antolatzaileak tratatuko dituela, eta eskabidean adierazitako xederako erabilko dituela; hala ere, edozein organismo publikori laga dakizkioke haren legezko betebeharrak betetzearen alde egiten badu. Horretarako, eskabide honen sinadurak balioko du baimen adierazi moduan. Edozein pertsonak baliatu ahal izango du, edozein unetan, informazioa eskuratzeko eskubidea, baimena kentzekoa, datuak ikustekoa, zuzentzekoa, ezeztatzea/ezabatzea, haien kontra egitekoa, haiek mugatzekoa edo eramangarri izendatzekoa, betiere Datuak Babesteko Araudi Orokorrean ezarritako eran. Horretarako, mezu elektronikoa bat bidali beharko dute info@antirumores.es helbidera. Onartzen dut pribatutasun politika.

Onartzen dut

Beste informazioen bat erantsi nahi baduzu edo zalantzaren bat agertu edo galderaren bat egin nahi baduzu, idatzi hemen, mesedez.

IKUS-ENTZUNEZKO ERRONKA ZURRUMURRUEN AURKAKO MUGIKORRAK

“Dibertsitatearen alde, diskriminazioaren aurka”

DATUEN BABESARI BURUZKO BAIMEN INFORMATUA

Jaun/Andre

nortasun agiriarekin

legezko tutore gisa:

IZEN - ABIZENAK:

NORTASUN AGIRIA:

SEXUA:

JAIOTERRIA:

HELBIDE ELEKTRONIKOA:

TELEFONOA:

HELBIDEA:

Datuen Babesari buruzko (EB) 2016/679 Erregelamendu Orokorrak eta 3/2018 Lege Organikoak (abendua 5koa, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalen Bermeari buruzkoa) ezarritakoa betez, jakitera ematen dizugu ezen zure datuak “Dibertsitate Programen Herritar Sarea” izeneko tratamendu-jarduerari erantsiko zaizkiola, zeinaren arduraduna Bilboko Udaleko Lankidetzako, Bizikidetzako eta Jaietako Saila baita.

Horrela eskuratutako datuak beharrezkoak dira berdintasunarekin, lankidetzarekin eta herritartasunarekin zerikusia duten programak eta jarduerak kudeatu eta haien zabalkundea egiteko. Hala, bada, honen bidez, baimena ematen duzu berariaz zure datuak horretarako tratatu daitezen.

Era berean, Lankidetzako, Bizikidetzako eta Jaietako Sailaren jardueretan parte hartua bazara, honen bidez, irudia/ahotsa lagatzen dituzu jarduera horien zabalkundea egiteko, horretarako baimena emanik.

Bai, baimena ematen dut, irudia/ahotsa lagatzen ditut. Ez dut baimenik ematen, ez ditut irudia/ahotsa lagatzen.

Eskubidea izango duzu zure datuak ikusteko, zuzentzeko, ezabatzeko, kontra egiteko, beste norabait eramateko eta tratamendua mugatzeko; horretarako, idazki bat aurkeztu behar duzu Bilboko Udalean (Ernesto Erkoreka plaza, 1., 48007 Bilbo) zure NANaren, egoitza-baimenaren, pasaportearen edo kideko balioa duen beste dokumentu identifikagarri baten kopia erantsiz.

Edonola ere, eskubidea duzu erreklamazio bat aurkezteko Datuak Babesteko Espainiako Agentzian (AEPD).

NANa eta izena:

Sinatuta: _____

Data: